

Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa

Amaia Apalauzak prestatutako Mendaur bildumaren X. liburukia

Andres Iñigo

Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuarekin duen hitzarmenaren barruan egitasmo berezi gisa sortu zen Mendaur bilduma. Asmoa izan zen Nafarroan euskararen inguruan egiten diren zenbait ikerketa edota biltzen diren lekukotasun aipagarri bilduma honen bidez ezagutzera ematea.

Orain arte argitaratu diren liburukietan Nafarroako hainbat eremutako lanak bildu dira, hala nola, Erronkaribarkoak, Luzaidekoak, Erroibarkoak, Esteribarkoak, Baztan-Bidasoa eremuaren ingurukoak eta Sakanakoak. Gaien arabera, hiztegi, gramatika, dialektologia eta toponimia azterketak plazaratu dira, bai eta Nafarroako bi idazleren lanak ere, Jose Maria Satrustegiren testu bilduma bat eta Perpetua Saraguetaren idazlanak eta hiztegia.

Gaur aurkezten dugun lana bildumaren X. liburukia da, Amaia Apalauza goldaraztarraren doktore tesia, Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa izenburua daramana. Eremu geografiko zabal bat hartzen du ikerketa honek, orain arte bilduma honetan argitaratu ez diren honako lau ibar hauek: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu. Beraz, lau ibar eta herri ugaritako euskararen lekukotasuna.

Aipatzekoa da ibar horietako hizkerak aztertzeko Amaia Apalauzak egin behar izan duen lan zabalak. Izan ere, 34 herritan ibili ondotik, elkarrizketatu dituen 138 pertsonari egindako elkarrizketa eta grabazioetatik informazio ugari jaso ahal izan du. Aipagarriagoa oraindik, ondotik gauzatutako lana, hots, ibar horietako hizkerak aztertzeko aplikatu duen ikuspegi metodologiko sakon eta argia. Egileak azalpen deskriptibotik harago doan azterketari ekin dio. Eskualde horietako alderdi fonikoak, morfo-sintaktikoak eta lexikalak modu kontrastiboan aztertu ditu eta lau ibarretako euskararen ezaugarrien arteko konparazioa egitearekin batera, ibar horien inguruko hizkerak ere aintzat hartuz interpretatu eta azaldu ditu emaitzak. Horrenbestez, aipatutako eskualde zabal horretan egiten den hizkeraren ikuspegi orokorra eskaintzea lortu du, dialektologikoki Nafarroako ipar-mendebaleko hizkera deitzen zaionaren ezaugarriak modu sakon eta konplexuan aztertu, sailkatu, azaldu eta plazaratuz.

Ohore bat da aipatutako lau ibar horientzako bertako euskara hain modu sakon eta argian aztertu eta ezagutzera eman izana eta pozgarria denentzat azterketaren emaitzak liburu honen bidez eskura izatea. Euskaltzaindiarentzat ere material hagitik baliagarria izanen da euskara batua hobeki hornitzen, osatzen eta aberasten joan ahal izateko.

Eskerrik asko eta zorionak Amaia Apalauza ikertzaile trebeari burututako tesiagatik, bai eta lan horretan zuzendari izan duen Iñaki Camino irakasleari ere.